



Hezkuntza Sailak proposatutako *Bizikidetzarako hezkuntzaren aldeko konpromisoa* dela eta, STEE-EILAS sindikatuak honakoa adierazten du:

1. **Ez dugu bat egiten** bizikidetzaren gainean Hezkuntza Saila bultzatzen ari den ekimen honekin, eta ondorioz **ez gara joan konpromiso hori adierazi duen ekitaldira**.
2. Aurkeztu diguten ekimena **testu labur eta oso orokor bat baino ez da**, sinatu beharrekoa ekitaldi publiko batean. Konpromiso horrek zein garapen edota ekintza-ildoak ekar ditzakeen ez da zehazten. Ez zaigu serioa iruditzen, honela planteatuta irudi hutsezko ekitaldia da.
3. Azken urteetan gure aldetik egin diren gai honen inguruko iritziei, ekarpenei eta eztabaida eskaerei ez entzunarena egin diete, eta **orain arte aldebakarreko bidea jarraitu dute**, gai honetan ez ezik hiru eleko markoan, eskola 2.0aren ezarpenean eta beste gai ugarian ere. Ez dugu ulertzen zertara datorren orain publikoki elkarrekin agertu beharra.
4. Proposamen honetan ez da eztabaidarako edota adostasunak bilatzeko aukerarik izan: testua onartu ala ez, ekitaldira etorri ala ez da planteatu zaigun aukera bakarra, egun gutxi batzuetan erabaki beharrekoa. Gai honekin **beste ibilbide bat eta beste aurretiko lana egin beharko litzateke asmoa lan serio eta eraginkorra egiteko, hezkuntza lehentasuna bada behintzat**. Gauzak horrela, presa eta erabilpen politikoa ikusten dizkiogu ekimen honi.
5. STEE-EILAS sindikatuak bizikidetzaren inguruan orain arte **ekarpenak egin izan ditu jendartearen eta egiten jarraituko du**. Eta hezkuntzaren esparruan Giza Eskubideetarako errespetua sustatzea, gatazkak gainditzeko elkarriketa eta bortizkeriarik gabeko bideak erabiltzea, demokrazian eta partizipazioan sakontzea, herritar aske, kontziente eta kritikoak garatzea bezalako **baloreak aldarrikatzen ditu**

Hezkuntza Sailak testuan jaso du: *hezkuntzari kontsentsuak eta adostasunak ematen diote balio erantsia, gorde eta zaindu egin behar duguna*. Hau Hezkuntza Sailak benetan sinisten badu, bere buruari begira diezaion, asko baitu aldatzeko; guk, orain arte behintzat, **kontsentsu eta adostasun bilatzetik oso urrun ikusi dugu Hezkuntza Sail honen jarduna**.

Nazio batzorde Iraunkorra